

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gaintza



Aurkibidea

Udalerria: Gaintza

Sarrera



Gipuzkoako hego-ekialdean eta Goierri kokatuta dagoen landa-udalerri txikia eta euskalduna da. Oso ingurune malkartsuan dago kokaturik udalerria. Udalerri hauek ditu mugakide: Baliarrain eta Orendain iparraldean; Abaltzisketa ekialdean; Alzaga mendebaldean; eta, Zaldibia mendebalde eta hegoaldean. Udalerriko ekonomia, abeltzaintza eta basogintzan dago oinarriturik. Euskal hiltunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 119
- **Euskaldunak:** %95,38

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **7**
- Zintak: **8**
- Pasarteak: **19**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **13**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Goierri Telebista

Hizlariak

Luisa Arruabarrena Olano (1934)



Luisa Gaintzako Oteñe baserrian jaio zen, lau anai-arrebako familia batean. Aita gaintzarra zuen eta ama zaldibiarra. Eskolara 14 urte zituen arte joan zen; gaztetan, berriz, josten eta sukaldean ikasten ibili zen, bai Ordizian, baita Donostiako moja ikastetxe batean ere. Etxean ere lan asko egin zuen, aita aldamenen eramatzen zuen behar zirenak egitera, denetik egitea tokatu zitzaion. 29 urte zituela, Gaintzako seme zen Ignazio Garmendiarekin ezkondu zen Mendizabaltxiki baserrira. Bera izan zen Gaintzan zuriz ezkondu zen lehen emakumea.

Joxe Antonio Garmendia Etxeberria (1954)



Gaintzako Elozegi baserrian jaioa, bertan bizi izan zen 15 urte bete zituen arte, orduan Irazusta baserrira mugitu zen bere familiarekin; Elosegin errentan zeuden eta aita etxea erosteko nahia bete zuen. Gaintzako eskolan ibili zen, baina askotan kale egin beharra izaten zuen baserri lanetan aritzeko, berak ere, nahiago izaten zuen itzula ibili eskolara joan baino. Hamabi urte zituela artzaina zuen osabarekin morroi joan zen Zarautzera, negua pasatzera; ondorengo bost urtetan ere, horixe izan zen bere patua eta artzaintzaren nondik norakoak ederki barneratu zituen. Soldaduska Tenerifen egin eta bueltatu zenean, baserri nahiz artzaintza lanetan jardun zuen.

Mateo Garmendia Olano (1936)



Gaintzako Mendizabaltxiki baserrian jaioa, aita zuen bertakoa, ama, berriz, Gaintzako Gorostizuandi baserrikoa. Umea zela eskolara joan zen, baina etxean ere lan asko zegoenez makina bat aldiz kale egin beharra izaten zuen. Baserrian lan egin zuen soldaduskara joateko garaia heldu zitzaion arte; Afrikan pasa zituen 18 hilabete, denboraldi batez "chico de prueba" gisa ere ibili zelarik. Bueltatu zenean, gidari lanari ekin zion. Urte batzuk igarota, lanbidea aldatu zuen eta iturgin zela erretiratu zen.

Maria Dolores Matxain Zubeldia (1927)



Gipuzkoako Gaintzako Otaegienea baserrian jaioa. Bai aita eta bai ama herrikoak zituen. Gerra garaian hiru anaia soldadu ibili ziren, eta gogoan du familiaren orduko sufrimendua. Hogeita lau urterekin Abaltzisketara ezkondu zen.

Santos Tolosa Uria (1920)



1920an jaioa Gaintzako Arrieta baserrian, Aita Altzakoa eta ama Oteñe baserrikoa zituen; 5 anai-arreba ziren sendian. Eskolan Gaintzan ibili zen jaunartzea egin zuen arte. 14-15 urterekin Durangoko jesuitetara joan zen ikasketak egitera. Gerra hasi zenean, Durangon zegoen eta une latzak bizi zituen han: jesuiten kapera bonbardatu eta jende ugari hil zen bertan. Santosek zortea izan zuen eta jesuitetako baten arrebaren etxera joan zen Trabakua baserrira beste lagun batzuekin batera; 7 hilabete egin zituen bertan etxekoekin harremanetan jartzerik gabe. Erretiratu arte Beasaingo CAF lantegian aritu zen lanean.

Maria Luisa Zubeldia Mujika (1930)



Maria Luisa Villabonako hospizioan egon zen, hilabete gutxirekin Ormaiztegiko familia batek jaso zuen arte. Sei urtez Ormaiztegin egon ondoren, ama biologikoak zaintza beregain hartu, eta Gaintzako Elosegia baserrira eraman zuen bizitzera, bertakoa baitzen ama. Elosegin, ama, amona eta bi osabarekin bizi izan zen Maria Luisa. Lan asko egin zuen baserri hartan, baina, hala ere, eskolara joateko beta izan zuen. Hemeretzi urte zituela Gaintzako seme batekin ezkondu zen.

Pedro Zunzunegi Garmendia (1933)

Gaintzako Agerre baserrian jaio zen 1933eko martxoaren 9an. Ordutik bertan bizi da. Arreba bat eta beste bi anai ditu. Eskolara Gaintzara eta Ordiziako Santa Ana ikastetxera joan zen. Ofizioz baserritarra da eta Joxepa emaztea Larraitzen ezagutu zuen. Lehenengo telebista Ceutan soldadutza egiten zegoela ikusi zuen 1954ean. Gaintzako alkate ere izan zen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Baserria markes bati erosi zioten

- **Hizlaria(k):** Tolosa Uria, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GTZ-001/002
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:02:25. **Bukatu:** 00:03:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Baserrian ganadua zuten, behiak. Hasieran maizterrak ziren baina gerra hasi zenean baserria erosi egin zuten. Nagusia San Millaneko markesa zen.

Transkripzioa

- Eta hemen, Arrietan, basarritik bizi ziñeten.
- Bai, urte askon, bai.
- Zer zeukezuen, ganadue?
- Ganaue, bai.
- Ze ganadu eukitzen zenuen?
- Behik
- Behiek?
- Behiek.
- Esnetako o?
- Bai, garai hartan...
- Haragitako?
- Haragitan'e, zer, nahastuta.
- Aja, etxean zu...
- [...] ni, arten ez zeon razaik eta, ez, ez zeon.
- Zuek... etxe hau zuena zan ala erreterok ziñaten?
- Gero erosi, gero erosita dao.
- Aurretik erreterero izanda.
- Bai, bai. Gerra, gerra hasi zanen erosita.
- A! Gerra garaian erosi zenduen?
- Bai, hasita [...] eta nausik saltzea jarri zittun, maizterrak gerraako dirue emateko saldu in zittun basarrik.
- Eta nausie zer zan Gaintzakoa?
- Ez, ez, ez [...] markesa o.
- Markesa?
- "Marques de San Milan o San Milian". Bai.
- Aa. Baserri bat baiño gehiyo izango zittun hemen.
- Bai, hemen, hemen hau bakarrik.
- Hau bakarrik zan berea?
- Bai.
- Aa.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Ordiziako azokara joaten ziren saltzera

- **Hizlaria(k):** Tolosa Uria, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GTZ-001/003

- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:03:51. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Gazta egiten zuten etxean eta Ordiziako azokara saltzera eramaten zuten. Oinez joaten ziren, astoarekin. Babarrunak eta gaztainak ere eramaten zituzten. Tartean norbaitek parte hartzen du. Gurdi bideak zeuden garai haietan.

Transkripzioa

- Esan dezu behiek eukitzen zittuzuela, esne saltzea ta juten ziñeten?
- Ke ba! Ba! Gazta in ta..
- Gazta itten zenuen?
- Bai.
- Eta etxeako ala saltzeko?
- Saltzeko.
- Saltzeko.
- Saltzeko.
- Nora saltzen zan ordun?
- Orduun Ordizin perien, perin.
- Peria. Gaiñantzen ez zenuen etxe jakiñik o dendaik o eukitzen?
- [...]
- Ez?
- Perie.
- Peria. Hemendikan Ordizia oiñez.
- Bai, hemendik Ordizia astookin.
- Astoa hartuta. Ze gehiyo eamaten zenduen, gazta ta ze gehiyo?
- Ba sobraik balin bazeon, babarruna pixkat eta...
- Laguntzailea: Gaztaiñe´re igual...
- Gaztaiñea, gaztaiña denboran gaztaiñea´re bai.
- Eta Ordizia juteko ze ordutan ateatzen ziñeten hemendik? Goizo jun beharko zenduen ba?
- E?
- Goizo jun beharko zan ba.
- Batzutan negun, negun ahal zan lekutik, hemendio. Horrea´re Zaldibi, baiño Ordizia´re bai.
- Zaldibiko kruzea ateatzen sienten?
- Bai, bai.
- Bide bat baiño gehio zien?
- E?
- Gaur bezela bide bat baiño gehio zien?
- Bai, bai, bai, bai, bazien.
- Bat Zaldibia juten zana...
- Zaldibia bat, bai.
- Eta?
- Zaldibia hemen goitik behera zuzenen jun.
- Eta beste aldetik´e bazeon jutea, Larraitz aldea?
- L.: Ez, ez.
- Ez.
- Ez?
- L.: Baiño bidea hau ez zeon arten, hor [konpontzen] ai dana, ez zeon bide hau, zeon bidea, hola, ba, bidetxurre, zea.
- Bai.
- L.: Gurdi bidea.

- Gurdi bide hoi.
- L.: Eske bidea gero... nik aitzez, ez?
- Geroa indakoa?
- Gero, bai. Gerra, gerra hasi zanen handio horrea. Kamiñoa're gerra hasi zanean in zan.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Lasto argia Ordiziako bidean laguntzeko (GTZ-001/004)

Azokara goizean goiz joaten ziren eta lasto argia eramaten zuten. Argi hura nola egiten zuten azaltzen du.

2. Ordiziako azokan saldu ondoren ardoa erosten zuten (GTZ-001/005)

Ordiziako azokan ez zuten leku jakinik, edozein lekutan jartzen ziren. Produktuak lurrian jartzen zituzten. Han egoteko ez zuten ezer ordaintzen. Bueltakoan, zahagian ardoa ekartzen zuten. Zahagia zer zen azaltzen du.

3. Saltzaileak Gaintzara iristen ziren (GTZ-001/006)

Normalean babarrunak jaten zituzten. Arrainik ez. Zezina ere izaten zuten. Txerria ere hiltzen zuten. Gaintzara saltzaileak iristen ziren ogiarekin eta. Zaldiz etortzen ziren. Arraina ere ekartzen zuten, saskitan sartuta. Txitxarroak eta horrelakoak jaten zituzten. Angulak ere saltzen zituzten.

4. Baserriko sagarrekin sagardoa egiten zuten (GTZ-001/007)

Baserrian sagar gutxi batzuk izaten zituzten, errezil sagarrak, merkalinak,... Sagardoa egiten zuten. Auzokoen dolarea erabiltzen zuten, eta kimikarik erabili gabe egiten zuten. Barrikatan gordetzen zuten. Sagarra eskuz biltzen zen. Dolarea erabiltzeagatik ordaindu egin behar zen.

5. Ordiziako azokan jende asko; astoa non uzten zuten (GTZ-001/008)

Azokan diru gehienak gaztainerekin lortzen zuten. Ordiziako azoka jendez beterik egoten zen. Inguruko herrietako jendea izaten zen. Astoa uzteko leku berezia egoten zen, "asto kalea". Garai haietan egun osoan egoten zen feria.

6. Durangoko Jesuiten ikastetxean ikasi eta lana egiten (GTZ-001/009)

Eskolan denbora gutxi ibili zen. Gaintzan eskola bazegoen. Gerra hasi zenean 16 urte zituen. Gero Durangora joan zen ikastera, Jesuiten eskolara. Durangon euskaraz ere ez zuen ulertzen, bizkaitarrez hitz egiten zutelako. Ez zuen asko ikasi, lan handia egin behar izaten zuen.

7. Bonbardaketak Durangon gerra garaian (GTZ-001/010)

Durangoko jesuitetan zegoela, gerra hasi zen eta bertan egon beharra tokatu zitzaion. Asko gogoratzen ditu egun haietako bonbardaketak. Egun haietako oroitzapenak azaltzen ditu. Hirugarren egunean, Mallabiko Trabakua baserrira eraman zituzten, eta han zazpi hilabete egin zituen.

8. Gaintzako elizan bonba bat erori zen gerra garaian (GTZ-001/013)

Gerra garaian, Gaintzako elizako (ikus mapan) bobeda apurtu egin zuten, Orendaindik botatako bonba batekin. Orendainen militarrek zeuden eta Gaintzan gorriak.

9. Etxean garia egiten zuten (GTZ-001/017)

Etxean garia egiten zuten, artoa ere bai. Garia jotzea etxekoek egiten zuten. Garia eta artoa nola biltzen zituzten azaltzen du. Artoa taloa egiteko edo ganaduari emateko erabiltzen zuten.

10. Gaintzako kaminoa CAFeko langileek egin zuten (GTZ-001/019)

Beasaingo CAF lantegia itxita egon zen garai batean bertako langileek Gaintzako errepidea egin zuten.

11. Garai bateko ontziak gordetzen ditu (GTZ-001/023)

Garai batean erabiltzen ziren ontziak erakusten ditu, eta nola erabiltzen zituzten azaltzen du.

12. Gerrako tiroak, koltxoiak, eta botatako elizak (GTZ-002/003)

Gerra hasi zenean, 8-9 urte zituen Maria Doloresek. Behiak zaintzen zebilela, balatatik ihesi ibili behar izandakoa da bera. Etxe barruan, koltxoiak jartzen zituzten leihoetan, babesteko. Herriko eliza bota zuten garai hartan Orendaindik.

13. Janaria herrira eramatearen arriskuak (GTZ-002/005)

Gerra garaian, ama astoarekin joaten zen Ordiziako azokara, baserriko jeneroa saltzera. Egun batean, soldaduek jeneroa kendu zioten. Anaia tratularia zen, eta etxean hiltzen zituen txekorrak eta behiak. Maria Doloresek eramaten zuen haragia Ordiziara ezkutuan. Txekorra zintzilik hilda etxean zegoela, guardia zibilek harrapatuz gero, ez zuten ezer esaten eskupekoa emanda. Maria Dolores ez zen jabetzen zer esan nahi zuen astoa haragiarekin ezkutuan eramateak.

14. Ganbarako "ezkutuko harategia" (GTZ-002/006)

Baserriko ganbaran ezkutuko "harategia" izaten zuten. Ez zuten isunik jaso inoiz. Behin, tiro-balak entzun ziren baserri inguruan.

15. Txekorren inguruko bizimodua (GTZ-002/008)

Txekorrak ezkutuan hiltzen zituzten etxean, baina ez zuten arazo handirik izaten. Lan asko izaten zen etxean. Txekorren inguruko lan-prozesuak aipatzen ditu.

16. Atsolorrak (GTZ-002/026)

Atsolorrak izaten ziren haurra jaiotzean. Igande batean, auzoko inguruko emakume denei merienda ematen zitzaien.

17. Ogia egiteko errezeta (GTZ-002/028)

Ogia nola egiten zuen azaltzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com